

Arrasate

P R E S S

2000.eko
uztailaren 14a
504. zenb.



Gurpilen gainean

IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGUEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: LEIRE BERGARA
KIROLAK: DONOSTI ETA GASTEIZ CUP • KULTURA GAIA: AED-REN AUZOLANDEGIAK




ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etterako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etterako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)
2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

Erabakitzeke gaitasunik bai?

Abokatu lanetan ari den edonori ezkontz banaketaren bat bideratzearen eske hurbiltzen zaionean norbait, aurrena, eta aukera txikiren bat baldin badago, banaketa hori adostasunean aurrera eramateko ahalegina abian jartzea izaten da lehen urratsa. Horretarako, beste bikotekideari deitu eta lehenaren asmoak azaltzea izaten da ohitura...Eta hor hasten dira hastekoak: banaketa eskatzen duena desastre bat dela, alferra, gaiztoa, oso bizimodu aldrebesa ematen diola...nola ausartzen den banantzea eskatzera....



Nekane San Migel

Hori entzunik, aukera ezin hobea ikusten duzu hãuxe luzatzeko: A!, bada orduan, hain desastre izanik, banatzeko irrikitan egonen zara...halako zama gainetik kendu, eta lasai bizitzeko aukeran jarriko duzu zure bizimodua horrelako emakume

Hain jasanezinak bagara, zergatik ez gaituzue gure aldetik bake-bakean uzten?

alprojarik jasaten jarraitu gabe, ezta?...
 Ez ba!, orduan hasten dira beste holakoak: "...Ez, baina, hala ere, nik asko maite dut, nik uste dut erremedioa baduela "zu bezalako feminista higuinarririk burua ez balio berotuko", nirekin gustura jarraituko luke...Bulego honetara, fijo ez dela bakarrik etorri auzoko "kotilla" nazkagarriren batek lagunduko zion". Alferrik zen esatea bera etorri zela, bere bizimodua bere erara antolatu nahi zuela: "koitadu horrek ez daki zer gura duen ere... egunero ematen diot dirua erosketak egiteko, nahi duena erosten du...ni ez nagoenean ere lagunekin hor ibiltzen da...zer gehiago ba?...hori ez al da askatasuna eta errespetua...?" Eta adostasunik ezinean, epailearengana jo behar, azkenengo urteetan banaketa eskatzea nahiko

arrazoitzat jotzen baita, bakoitza bere aldetik joan ahal izateko.

Hala joaten ziren behin eta berriz historia txiki horiek...eta hainbeste aldiz hori entzunda, bada...zera, Gure Herri honi buruzkoak entzundakoan ere halako zerbaite erantzutea etu zitzaidan: Nazkaturata bainengoen (eta nago, noski) zuek guztiok egunero entzuten duzuenaz: Faxistak garena, terroristak garena, ez dakigula zer nahi dugun...Espainiari kaltea besterik ez diogula ekartzen....Daukagun autonomia zabala izanik, zer gehiago nahi dugu?!...

Adizu!...eta hain jasanezinak bagara, zergatik ez gaituzue gure aldetik bake-bakean uzten?...banatu nahi duenaren antzera, galdetu...baina, hori zuzen galdetu (ez etxeko gastuetarako nahiko diru ematen duen senarraren moduan...).

Bada, EZ JAUNA!...ez dakigunak zer nahi dugun gutxi batzuk garena...abertzaleak, baina gehiengoak ez duela halakorik nahi...besteok presionatzen ditugula...eta segi...maiz entzuten dituzuenak.... Bulegotara joaten diren bikotekideak, gutxienez, demanda aurkezteko aukera dute. ■

"Pilota kirola, 'pilota vasca' da eta federazio guztiek dute 'hango edo hemengo euskal pilota federazioa' izena, Espainiakoak izan ezik."

Mikel Amenabar

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
 Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabaria eta Gorka Etxabe. **Publizitate:** Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla, Arantazu Arroisabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain, Ane Beresibar. (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaileak:** Lorea Aguilano **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Kamele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteta Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubi-llaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Marijo Deogracias.

32.548.000

pezeta eman
dizkio udalak ARKori.

Arrasate Komunikabideak Elkarteak Arrasate Press eta Goiena Telebistan inbertituko du jasotako dirulaguntza. Horrez gain, AEDri 8.860.570 milioi eta Txatxilipurdiri 24.911.565 ematea ere adostu zuten elkarte guztietako eta udaleko ordezkariak. Laguntza hitzarmenak joan den asteartean sinatu zituzten udal-txean.

AURKIBIDEA

• Ikuspegia	3	• Asteko gaia	16/17
• Erabakitzeke gaitasunik bai?		• Kamiolariak, errepidetako nagusi	
• Irakurlea idazle	4	• Aurrez aurre	18/19
• Inkesta	5	• Mikel Amenabar	
• Asteko hitzorduak	6/7	• Kirolak jokoan	22/23
• Euren ikuspuntutik	8	• Kulturaren txokoa	24/26
• Batasuna Prozesua		• Ikusi eta entzun	27
• Astearen errepassoa	9	• Azoka plaza	28/29
• Orain eta hemen	10/11	• Foto zaharra	30
• Txutxumutxuak	12/15		

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualekioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 943 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

MURTZIATIK ARRASATERA

Ekainaren 16an ezbeharrak eramane ninduen Arrasatera. Aitaren heriotzaren ondorioz, goibeltasuna zen nagusi nire baitan. Goibeltasuna eta amorrua, aspaldi bidali bainuen Madrilerara aita ikusteko eskaera. Aitarekin pixka bat egotea, agurtzea eta azken besarkada ematea eskatzen nuen bakarrik. Ez zidaten eman aukera hori, baina ziur nago aitak bazekiela etxean ez ginenok ere han ginela, berarengandik gertu-gertu.

Aitaren heriotza, Arrasaten 20 urte egon gabe, ziegako bakardadetik hainbeste jendartera pasatzea... sentimendu gehiegitzo lasai egoteko. Erabat minduta neraman bihotza, baina berehala sentituen zuen elkartasuna eta maitasuna: nire baitan olatuak bailiran nahasten ziren guztiak, oso sentsazio bitxiak sortuz. Eliza atarian, Mariaren eta Joxeparen besarkadarekin sakabanatuak dauden lagun guztien besarkada sentituen. Ondoren, beste ehunka musu eta besarkada jasotzen nituen. Gehienak ezagutu nituen, nahiz eta urte luzeak egon elkar ikusi gabe, beste batzuk, ezagutu ez arren, ber-

din hurbildu ziren eta guztiei eskertzen diet han egotea. Egon ziren ere, han egoterik izan ez zutenak, bihotza bertan eduki arren, horiei ere mila esker.

Elizatik atera nintzenetik ertzainen autoraino, bertan bilduta zeuden lagun txaloek lagundu ninduten. Geroztik, txalo zaparrada horrek Langraitzeko ziegako bakardadean lagundu ninduen goibeltasuna hobeto eramaten: Murtziara itzultzeko bost eguneko bidaian, nirekin etorri ziren txaloak autobuseko kaiolan eta nire atzean sentituko ditut berriz ere, Arrasatera itzuli arte.

Lerro hauetan nire sentimenduak azaltzen dizkizuet, baina eteko guztiok sentituen zuen elkartasuna eta maitasuna. Guztiok partetik, jaso itzazue gure eskerrona eta besarkadarik beroena.

Enrike Letona

Erredakzioaren oharra

OPORRETAKO POSTALAK BEHAR DITUGU

Uztailaren 21ean Arrasate Pressek ere oporrek hartuko dituzte irailaren lehenera arte.

Hori dela eta, lehieketa bat prestatu dugu.

Oporretako postalik edo argazkirik orijinalen bila ari gara.

Zoazen lekura joanda ere, bidali agur bat Arrasate Pressera.

Irailaren 11 baino lehen iritsi behar da, irailaren 15ean argitaratuko dugulako gure zozketako irabazlearen izena.

Postal edo argazki orijinalenen artean, lau lagunendako afaria zotz egingo dugu. Afaria Garagartzako Ugarran jatetxean izango da.

Postalak honako helbidera bidali:

**Arrasate Press
Otalora, 31
20.500 Arrasate**

Parte hartu! Postal bat edo argazki eta agur bat baino ez dugu eskatzen.

Ondo pasa oporretan!

Arrasate Press

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 14
• Morales, San Andres

Larunbata, 15
• Azkoaga, Ferrerías

Igandea, 16
• Irizar, Erguin

Astelehena, 17
• Amezua, Santa Marina

Asteartea, 18
• Ruiz, Maala

Asteazkena, 19
• Morales, San Andres

Osteguna, 20
• Irizar, Erguin

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Zer aldatuko zenuke Santamainako jaietatik?

Asteburu honetan ospatuko dira Santamainako jaiak



Felisa Badiola
(80 urte)
Erretiratua

Aurten ez dago gauza handirik. Lehen, igandetan zezenak izaten ziren, baina aurten ez daude.



Ziriako Bragado
(79 urte)
Erretiratua

Gazteentzat ongi daude, baina nagusientzako ez dute ezer askorik.



Jose Sanchez
(37 urte)
Langilea

Umeentzat ekitaldiak nahiko ongi daude. Dena dela, ez da erdialdetik jende askorik etortzen.



Tania Rayo
(14 urte)
Ikaslea

Gauetako dantzaldiak gus-tatzen zaizkit, baina barraken falta sumatzen dut.



Sito Sanabria
(15 urte)
Langilea

Sokamuturra ongi egoten da. Dena dela, barrakak eta txosnak ere egon beharko lir-ateke eta jendea etortzera animatuko nuke.



Tana Sanchez
(31 urte)
Langilea

Beste urte batzuetan areto futboleko txapelketa egon da, eta aurten ez dago. Hori jarriko nuke. Sokamuturra ere jarriko nuke.



Amelia Barrionuevo
(46 urte)
Langilea

Jaiak ongi daude. Dantzaldirako taldearen arabera jende gehiago edo gutxiago etortzen da.



Enkarna Barrionuevo
(39 urte)
Etxekoandrea

Barraka gehiago jarriko nituzke umeentzako, eta sokamuturra ere bai.

 **Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

PUB HAIZEA
 arrasate

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

14

ostirala

■ ZINEMA

La Musa, 19:00-22:00, Alai zineman. Adin guztientzat.

■ XABIER MONTOIA JAIZALEN

Xabier Montoia musikariak emanaldia eskainiko du Olarteko Jaizale tabernan. Sarrera doan. 22:30.

15

larunbata

■ ZINEMA

Campo de Batalla: La Tierra, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

■ PRESOEN ALDEKO TALDEAREN BILERA

Aretxabaletako Euskal Presoen aldeko taldeak bilera egingo du udaletxeko ganbaran, 19:00.

16

igandea

■ ZINEMA

Campo de Batalla: La Tierra, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

■ TXIRRINDULARI LASTERKETA ELGETAN

Euskadiko XVI. Mendiko Txirrindulari Lasterketa ospatuko da Elgetan. 23 urtetik beherakoentzat eta elitekoentzat. 10:00-13:10.

17

astelehena

■ ZINEMA

Campo de Batalla: La Tierra. 19:00-21:30, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

18

asteartea

■ ZINEMA

Campo de Batalla: La Tierra. 19:00-21:30, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

SAN LORENTZOAK PORTASOLEN

EGUBAKOITZA, 14

- 18:00 Txupinazoa.
- 18:05 Txistulariak eta buruhandiak.
- 19:00 Txikiteoa.
- 22:30 Disc-Jockeyekin dantzaldia.
- 03:45 Galtzontzilo eta kulero lasterketa.
- 04:30 Txokolate jana.

ZAPATUA, 15

- 10:30 Diana txistulariekin.
- 12:00 Sokamuturra.
- 12:00 Puzgarriak.
- 13:00 Poteoa.
- 15:00 XX. Mus Txapelketa.
- 16:45 Briel magoaren ikuskizuna.
- 17:45 Haurrentzako txokolate jana.
- 18:00 Txistulariak eta buruhandiak.

- 19:00 Sokamuturra.
- 20:00 Sandwich jate lehiaketa.
- 20:30 Berbena, Eguzkialden.
- 00:00 Dantzaldia.

DOMEKA, 16

- 11:30 Meza.
- 12:30 Marrakzi lehiaketa.
- 16:00 Xake txapelketa.
- 18:00 Bonba japoniarrak.
- 19:00 Azken txupinazoa.

Arrasate Presseko harpidetza berriztu nahi duzula?

Arrasatetik kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?
ORAINTXE DUZU GARAIA



Gure kontu korrantean 3.000 pta.ko diru sarrera egin dezakezu uztailaren 21a baino lehen, kontu korrante zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

Tel.: 943 71 23 90 • Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE

OPORRAK
BADATOZELA!!

LEHIAKETA:

Bidali Arrasate Pressera

(Otalora Lizentziatua, 31 • Arrasate 20500)

zure oporretako argazkirik edo postalik onenak

EPEA: IRAILAK 11
SARIA: UGARAN JATETXEAN 4
LAGUNENTZAKO AFARI EDERRA

UGARAN
jatetxea

ANIMA ZAITEZ, MEREZI DU ETA!

19 asteazken

■ DANTZA SAIOA

Lore Gazteak taldeak dantza saioa eskainiko du Monterronen, 22:00.

■ GORRI KOLOREKO MANTXAK

Martitzenean, hilaren 11n, Korrika Eguna ospatzen ari zen ume talde batek emakume bat inguratu zuen ondo sikatu gabeko pankarta gorri-gorri batekin. Litekeena da, beraz, emakume horrek gorri biziko mantxak aurkitzea erropetan.

Horrela bada, pasa dadila Txatxilipurditik, kalteordaina jasotzeko. Pablo Uranga kalea, 6.

■ SARATIK AMAIURRERAINO

Ikasle Abertzaleak taldeak Saratik Amaiurre-raino mendi ibilaldia antolatuko du, uztailaren 20tik 23ra. Izena emateko, 2.500 pezeta sartu behar dira uztailaren 17a baino lehen Euskadiko Kutzako kontu honetan: 092.0.04073.7.

Argibide gehiagorako, deitu 943 45 86 68 telefonora.

■ ABAROAKO ILE APAINDEGIA, LEHIAKETAN

Abaroa Erretiratuen Etxeko ile apaindegia ustiatzeko lehiaketa deitu du udalak. Kontzesioaren epea urtebetekoa izango da. Behin betiko bermea 200.000 pezetakoa izango da. Izen ematea, udaletxean.

■ KOMIKI LEHIAKETA

Urriaren 21era arte dago zabalik Arrasateko Komiki Ez Sexisten III. Lehiaketan parte hartzeko epea. Lanak 17x24 zentimetroko formatu bertikalean aurkeztu behar dira, eta bitik lau orri bitarte hartuko dituzte. Euskaraz edo gaztelaniaz. Lehen saria: 90.000 pezeta. Argibide gehiago, Udaleko Emakume Sailean.

■ ESKULAN ERAKUSKETA

Santamainako Jaiak direla eta, Toki-Argi egoitzan eskulan erakusketak izango da. Bisita orduak: egubakoitzean, 18:00-21:00; zapatu eta domekan, gainera, 12:00-14:30.

■ GAZTE BULEGOKO ORDUTEGIA

Gazte Bulegoko udako ordutegia honakoa izango da: astelehenetik egubakoitzean, 11:00-14:00. Arratsaldean astelehen eta martitzenetan baino ez dute zabalduko: 17:00-20:00.

Santamaina jaiak

Egubakoitz, zapatu eta domekan Santamainako jaiak ospatuko dira. Egitaraua "Auzoz auzo" izeneko orriari daukatzue oso-oso, 21. orrialdean.

Soinu teknikaria

behar du ARKOk egun erdirako lanpostu bat betetzeko

BALORATUKO DA:

- Soinu teknikari tituluduna izatea.
- Lan esperientzia.
- Windows sistemaren ezagutza.
- Gidatzeko baimena.
- **Derrigorrezkoa da euskara ondo jakitea.**

Kurrikuluma uztailaren 18rako Arkoren egoitzara ekarri. ARKO • Otalora lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE



ESKER ONA

2000.eko uztailaren 10ean hil zen

Juana Segurajauregi Madinabeitia

Bere familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hileta elizkizunetara etorri izana eta bere bizitzan zehar lagun izan diren guztiak.

USTEAK USTE

Gureak egin du

Gelditu zarete inoiz zapatu gauean telebista ikusten? Ezezkoa erantzuten badidazue, zorionak zuei, ondo egiten duzue eta! Kontua da joan den zapatuan ETB ikusten egon nintzela gauean. Txema Montoia eta Jon Uriarteren "Cantabric Blue" saioa zegoen ipini nuenean. "Cantabric Blue" edo "Pacific Blue" eta "Los Vigilantes de la Playa"ren nahasketa. Negargaria, horrela irudituzitzaian. Euskal Herriko hondartzetan zehar ibili ziren edonori edozer gauza galdeetzen eta tartean, nola ez, nesken irudiak sartzen zituzten, bista alaitzeko edo! Telebista publikoan, ikusleria guztiarentzako saioak egin behar direla eta, bikote honek nahi duena egiten du diru publikoarekin. ETBko arduradunek Espainiako telebista kate handiekin lehiazeko horrelako saioak egin behar dituztela uste badute, konponduta gaude! Uda osoan horrelako saioak eskaini behar badizkigute, konponduta gaude! Hobe dugu zapaturo Euskal Herriko herrietako jaietara joatea edo besterik barik, ohera goiz joatea! Benetan diotsuet, lotsagarria!

Marijo Deogracias



Batasuna Prozesua

* Leire Bergara

Ezkertiarra zara? Independentista zara?... ongi etorri Batasuna Prozesura!!

Euskal Herria, Europako herri zaharrenetarikoa bat izanik, ez da oraingoz bere etorkizunaren jabe; bi estaturen menpe eta hiru administrazioetan zatiturik dago. Mendeetan borrokatu behar izan du bere izaera, kultura, hizkuntza, sistema soziala, ekonomia defendatzeko, gaur bezalaxe.

Gaur egun Euskal Herria une garrantzitsu batean bizi da, ataka historiko batean. 1989ko irailean kaleratu zen eszenatoki politiko berria, egoera politiko itxaropentsua. Lizarra-Garazi akordioa, bizi dugun gatazka politikoa gainditze bidean jartzeko tresna gisa eratu zen; euskaldunok gure historian lehen aldiz batzen gaituen lehen instituzio nazionala —Udalbiltza— jaio zen; Euskal Herrian ozen oihukatu zen "Bai Euskarari"...

Prozesu subirano korapilatsu honetan, determina-

zio osoz arituko den subjektu baten beharra dauka, epelkerietatik at, azken muturreraino eramango duen agente politikoa behar du. Eta hori egituratu nahi dugun herritarren batasuna da.

"Batasuna" deitu zaion prozesu horretan, herri honetako ezkeriar zein abertzale orok, urteetan lanean aritu direnek, borrokari lotu zaizkion giza-sektore eta belarri berriek parte hartuko dute.

Erakunde nazionala izango da: Euskal Herriko sei herrialdeetara, lur eremu osora zabalduko da; egingo duen

“ Azken muturreraino eramango duen agente politikoa herritarren batasuna da ”

lana ere, ikuspuntu orokor horrekin egingo du.

Euskal Herria nazio gisa, euskalduna eta sozialista eratzeko sortu nahi dugun tresna izan nahi da.


Hau horrela izanik, erakunde berri honek, bere burua ezkeriar, sozialistatza eta euskalduntza duen heinean, behar dugun batasunaren barruan aniztasuna bultzatuko du: partaidetza mailak bultzatuko ditu, emakume eta gizonen arteko berdintasuna praktika bihurtuko du, herri mugimenduekin batera lan egingo du, hauek lagunduko ditu eta dituen baliabideak eskaini, munduko herrien arteko elkartasunaren aldekoa izango da...

Herritarren batasun honek bi ildo nagusi ditu: Batetik, Euskal Herriko prozesu demokratikoa irekitzeko baldintzak sortu, dauzkagun tresnak erabilgarri bihurtuz eta herriaren hitza eta erabakia errespetatua izan dadin lan egin beharko du, errepresioa, kontrol sozialaren aurka eta desmilitarizazioaren alde arituz.

Bestetik, eraldaketa soziala bultzatu bizitzaren esparru bakoitzean lan eginez: euskararen ofizialtasunean, eredu instituzional propioan, justizia sozialean...

Arloz arlo gure herria benetan eraikitzen joateko.

* Batasuna taldeko kidea



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

astea bi hitzetan

■ Arrasate asfaltatzen

Arrasateko Udalak Musakolako kiroldegiko aparkalekua asfaltatzea erabaki du. Ia sei milioi pezeta erabiliko dira horretarako. Adjudikaziorako baldintzak onartuta daude. Lehiaketa irekia antolatuko da, eta hortxe erabakiko da zein enpresak egingo dituen lanak. Ondoren hasiko dira, irailean, gutxi gorabehera.

Herrian dauden beharren artean, behar larriena dutenak aukeratu behar izan ditu udalak. Izan ere, 12 milioi eta erdi pezeta ditu konpon-

keta lan denak egiteko; eta diru hori ez da nahikoa dauden beharrak asetzeko. Ia 60 milioi pezeta behar dira horretarako. 12 milioiko aurrekontutik sobratzen diren ia 7 milioiekin, konponketa lanak egingo dira.

■ Fagor Elektronika

Fagor Elektronikako Teletista sailak 10 urte bete ditu berregituratu zenetik. Hazkunde handia izan du harrezkero; iaz, esaterako, 2.500 milioi pezeta fakturatu zituen, erdia Europarako esportaziotan. Horrez gain, 1.200

bezero ditu gaur egun eta produktu asko merkatuan.

■ Alegazioak

Arrasateko Udalak alegazioak aurkeztu dizkio San Prudentzian eraiki nahi den biribilari. Gipuzkoako diputazioaren asmoa da errekararen alde batetik besteraino doan biribil-zubi antzeko bat eraikitzea, trafikoaren arazoak konpontzeko. Arrasateko Udalaren ustez, baina, irtenbide horrek trafiko arazoak ez konpontzeaz gain, oro har, errekan eta inguruan eragin handia izango luke.



■ Fagor Arrasate, geldi

Katu baten erruz, milioiko diru galerrak izan ditu Arrasateko kooperati- bak.

Pasa den asteburuan, Fagor Arrasateko transformadorean sartu eta seko geratu zen katua, milaka voltioko deskarga jaso ondoren. Txarrena da deskarga horrek hondatu egin zuela Fagor Arrasateko transformadorea. Ondorioz, bulegoak, ordenagailuak eta fabrika osoa argindarrak barik geratu zen.

“Jadanik hasi naiz frantsesa ikasten. Egia esateko, Tolosaren eskaintza atsegin dudan aukera bat da. Lehen mailako taldea da eta futbol frantsesa modan dago. Ea gauzak ondo ateratzen zaizkidan eta urtebete barru Realera itzultzen naizenean, jokalaria hobe naizen”.

JOSE JABIER BARKERO

El Diario Vasco
(2000.7.6)



- Garageko atekak
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak



JUBAR®
ATEAK, S.L.


Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 •
Faxa: 943 79 08 17 • 110 Postakutxa • ARRASATE

Aurkikuntza Lezetxikin

Txikia da Garagartzako kobazuloa eta adituen esanetan ez da oso emankorra aurkikuntzei dagokienez. Bai, ordea, aurkikuntzen kalitatean. Horren adierazle da Lezetxikin egindako azken aurkikuntza: aurrehistoriako gizakiak erabiltzen zuen apaingarri bat. Itsaso maskorrarekin egindakoa da, kolore gorri bizikoa. Indusketaren 42. azalean aurkitu dute.

Ustez, jabeak bizilekua apaintzeko erabili zuen apaingarria da eta Parisen egindako antzeko aurkikuntza batekin bakarrik pareka daiteke. Beraz, gutxi daude munduan.

Baina, aurkikuntza hau ez da garrantzitsua arrazoi horregatik, orain arkeologoen artean bizi-bizi dagoen eztabaida baterako datu esanguratsuak eman ditzakeelako baizik.



Itsaso maskorrarekin egindako kolore gorri biziko apaingarria aurkitu dute.

GURE MODUKOAK

Kontua da, orain arte Neanderthal garaiko gizakiari ohitura jakin batzuk egotzi izan zaizkiola; gizaki modernoarekin zerikusirik ez duten ohiturak. Baina, ideia hori zalantzan jarri izan dute arkeologien hainbat adarretako adituek. Kritiko hauen ustez,

posible da Neanderthal garaiko gizakiek gizaki modernoaren ohiturak izatea. Lehen Parisen eta orain Lezetxikin egindako aurkikuntzek horixe bera frogatu dezakete; beraz, hemendik gutxira Garagartzako Lezetxiki, Europa osoko arkeologoen ahotan izatea posible da.

Ertzain bat zigortuta

Auzitegi Gorenaren erabakiz, Arrasateko ertzain batek 21 eguneko zigorra bete behar du auto bati eragindako kalteengatik. 1993. urtera jo beharra dago erabaki horren arrazoiaren bila, Otalora eta Maalako Errabala kaleen artera. Zigorra jaso duen ertzaina eta bere lankide bat errepedea pasatzeraz zihoazenean, auto batek ez zuen oinezkoen pasabidea errespetatu eta, gutxiagatik, ez zituen bi ertzainak harrapatu. Orduan, bi polizietako bat ostikoka hasi eta 27.000 pezetako kalteak eragin zizkion automobilari. Barne Sailak 21 eguneko zigorra ezarri zion, baina, ertzainak Barne Sailaren kontra egin zuen Auzitegi Gorenean, bere ustez, zigorra gogorregia zelako. Orain argitu da auzia, eta, ertzainak 21 eguneko zigorra jasoko du.

Udala-euskalgintza hitzarmena

Arrasateko Udala eta AED, ARKO eta Txatxilpurdiren arteko urteroko hitzarmena aste honetan gauzatu da. Horren arabera, udalak 66.320.135 pezetako dirulaguntza eman die aipatutako elkartei.

Udalaren partetik, Xabier Zubizarreta alkatea eta Juan Luis Arexolaleiba euskara batzordeburua izan ziren ekitaldian; AEDren izenean, berriz, Izar Larrañaga azaldu zen eta Txa-



txatxilpurdiren ordezkari moduan, Aitor Elizaran. Aitor

Orobengoak ordezkari zuten ARKO elkarteak.

Farmaziak itxita

Euskal Herriko botikarioekin batera, Arrasatekoek ere bi orduko lanuztea egin zuten asteartean. Lege-dekretu baten aurka protesta egiteko itxi zituzten farmaziak. Farmazien gastua murriztu eta sektorea liberalizatu nahi du lege horren bitartez. Dekretu-legeak botiken prezioan beharpen handiak ezartzen ditu, kasu askotan, botikarioek lortzen duten etekina baino handiagoak dira.

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Plus Ultra taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99


Akeiko erraustegia behera

Debagoieneko Mankomunitatearen Ingurumen Batzordeak erabakitakoaren arabera, Akeiko erraustegiaren zatirik handiena, lehengo labeak, bota egingo da.

Garai batean Debagoieneko zaborra biltzen zuten kamioiek Kanpanzarrerako bidea hartzen zuten. Akeiko erraustegian erretzen ziren bailarako zabor guztiak.

1996az geroztik, ez da zaborrik erretzen Akein; Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako zaborrak batu eta Sasietako zabortegira eramaten dira.

Hori dela eta erabaki dute erraustegiko bi herenak botatzea. Labeak bota eta gero, zaborra ekartzeko eta eramateko erabiltzen den transfe-



rentzia gunea eta Mankomunitatearen hainbat zerbitzu geratuko dira Akein. Izan ere, gaur egun erabiltzen da Akei.

Hala ere, lur horiek Arrasateko Udalarenak dira eta honek badu bestelako asmo-

rik ere. Hain zuzen ere, lur horiek bere onera ekarri nahi ditu Arrasateko Udalak, berreskuratzea. Era berean, konposta egiten ere hasi dira; horrekin herriko eta Debagoieneko parkeak eta lorategiak ongarrituko dira.

Presoen eskubideen alde, kalez kale



Mondragoetik ere pasatu zen "Euskal Presoen Eskubideen Aldeko Martxa Nazionala". 18:00etan sartu zen Mecatik. Presoen argazkiak aldean eta trikitiaren musikak lagundu-

ta, etxafuego eta petardoaren artean pasatu zen ibilaldia Mondragoetik, hemendik Oñatira bidean segitzeko. Herriko 45 taldek hartu zuten parte, bakoitzak 100 metro eginez.

Txernobildik Mondragoera

Hirugarren urtez, geurean ditugu Txernobilgo istripu nuklear larriak kaltetutako haurrak. 12 neska-mutiko etorri dira Debagoienara, hauetatik hiru, Mondragoera: Eugenia, Daria eta Natasha.

Ez dute inongo gaixotasunik; bai, ordea, erradiaktibitateak eragindako kalte handiak. Abuztuaren amaiera arte egongo dira hemen. Txernobilen Lagunak izeneko GKeren eskutik etorritakoak dira ume hauek.

Herriko mendietan lanean

Arrasateko Udalak herriko mendi guztiak garbitu eta mugarrizteko asmoa du, ehundik gora hektarea, guztira. Herriko mendiak itxura onean edukitzea da helburua eta argi eta garbi uztea behin betiko zein den Arrasateren jabetzako lur-eremua. Zatika egingo dira lan horiek, datozen lau urteotan.

EKINDA

Hala ere, dagoeneko hasita daude lanok: Hidalgo mendia 13 bat hektarea garbitu dituzte. Uztailaren bukarran edo abuztuaren hasieran segituko dute garbiketa lanek. Hain zuzen ere, Hidalgo, Montteron eta Kurtzetxiki mendietako 36-38 hektarea garbitzeko asmoa dago. Dagoeneko lanak adjudikatuta daude, eta bi milioi pezeta pasatxo-ko inbertsioa egingo da.

EGIN BEHARREKOA

Otak eta narrak ebakiko dira eta behar den tokietan, zuhaitzak mieztuko dira; hau da, zuhaitz guneak garbitu, egoera txarrean daudenak bota eta onean daudenak, utziz.

Garbitzeko falta diren beste mendiak txukuntzeko, udalak diputazioaren dirulaguntza lortu nahi du; izan ere, bost milioi pezetako inbertsioa behar da mendi guztiak garbitzeko.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

U N Z U E T A

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrilan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

ARABAKO HONDARTZA



Arabarek kostalderik ez izan arren, ez dute hondartzen inbidiarik, Landako urtegia egokitu dutenetik. Hantxe ibili ziren Arrasateko lagun hauek, udako eguzkipean, hankak bustitzen eta inguruneaz gozatzten.

91.951= 50 MILIOI

Berari tokatu balitzaio lez: horrelaxe sentitzen zen Miguel de Castro ONCEko saltzaile gaztea, Arrasaten 50 milioiko saria banatu zuela jakitean. Ematen duen aurreneko saria da. Zorionak, irabazleei eta saltzaileari!



ATA

%50 era

arteko beherapenak

ART III, BEST, SENDRA, SNIPE
%10EKO BEHERAPENA

Zarugalde kalea, 14
ARRASATE • Tel.: 943 79 49 72

Masaje Terapeutiko

ari buruzko Ikastaroa


Masaje
Mertxe
Masajeak



- Masajea
- Hidromasajea
- Bapore Bainuak
- Solariuma
- Ultrasoinuak

Gaiak

Giza Anatomia



Patologiak

Homalgiak
Lunbalgia
Ziatika
Eskoliosia
Zifosia
Lordosia
Zerbikalak
Eta abar

Masaje Aplikatua




Zelulitisa kentzeko Masajea



Kirol lesioak sendatzea

Muskulo-uzkurdurak
Zaintiratu
Tendinitisa
Tenislari ukondoa
Zuntzen etendura
Bendajeak
Eta abar

Reflexologia



Ordutegia: Asteazkena 18etatik 21etara

Iraupena: 13 hilabete

Hasiara: Irailak 6

Irakasleak:

Juan M^o santos eta Mertxe Alcalá

**PLAZA
MUGATUAK**

Kale Zaharra, 42 behea

Tel.: 943 78 01 71

Oñati

www.mertxe.com

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Tour Lehiaketa Mundiala

Lizarralde Kirolak-ek ematen duen mendi bizikleta hau irabazi nahi baduzu, azkar ibili!!

Tour-eko lehenengo hiru sailkatuak eta mendiko sailkapeneko irabazlea zeintzuk izango diren badakizu, beheko kupoi hau bete eta uztailearen 20a baino lehen Arrasate Press-era bidali (Otalora Lizentziatua, 31).

Irabazlearen izen-abizenak uztailearen 26an jakinaraziko ditugu Arrasate Irratian. Adi egon!!



Datu pertsonalak:

Jzen-abizenak:

.....

Telefona:

Helbidea:.....

.....

Herria:

Tour Lehiaketa

Sailkapen orokorreko lehen hirurak:

1.-.....

2.-.....

3.-.....

Mendiko irabazlea:

1.-.....

ANDALUZIA HOBETO EZAGUTZEN



Al-Andaluseko lagunek urtero egiten dute Andaluziara txangoa, eta aurten Kordoba bisitatu zuten: hiriburu zoragarria, Medina Azahararen arrastoak... Zuheros herrian atera zuten argazki hau, herriko kobak bisitatu ondoren.

EDERRA GAZPATXOA!



Egurrezko lapikoan berakatza, gatza, ogi birrina, oliba-olioa, arrautza bat, tomatea eta pepinoa nahastu, eta gazpatxo goxoa irtengo zaigu. Corazon de Encina elkartekoei horrela irten zitzaien, eta gustura asko edan zuten zapatuko Gazpatxo Egunean.

ARRANTZALE TXIKIAK

Amua eta kainabera hartu, eta arrantza txapelketan parte hartzera animatu ziren zapatuan Aramaio-ko 30 ume, 4 eta 16 urte bitartekoak. Amuarrain harrapaketan ibili ziren Aramaioko errekan.



DOTAKON LIKIDAZIO OSOA

% **70** erainoko
beherapenak

**Kamisetak 1.000
pezetatik aurrera**



Otalora lizentziatua, 1
ARRASATE
Tel./Fax: 943 77 16 92



943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

Kamioilariak, errepideta

“Igandean, uztailaren 10ean, Bartzelonara joan behar dut. Egubakoitz arratsaldean hozkailuz bete nuen kamioia Gas-teizen, hara joateko. Han kamioia hustu astelehen goizean eta egun horretan bertan berriz ere bete egin behar dut, tokatzen den orduan, martitzenean berriz ere buel-tan egoteko. Normalean beti irteten naiz domeketan, bai-na hori garraiolari gehienoi pasatzen zaigu; ez daukagu jaiegunik, ez eta askoren 30 eguneko oporraldirik ere. Hala ere, lan guztiek bezalaxe, bere alde onak eta txar-rak dauzka. Txarrena, beti etxetik kanpo zaudela, ordu asko... konturatzen zarenerako seme-alabak hazi egin zaizkizu ia ohartu ere egin barik; baina, lan bezala atse-gin dut, batez ere gidatzea gustuko dudalako”.

Zapatuan ospatu zuten Debagoieneko San Kristobal Anaidiko garraiolariak euren patroia eguna. San Kristobal eguna astelehenean izan zen, baina asteko eguna zenez, eta guztiak bidaiari egongo zirela eta, zapatuan ospatu zuten. Kontzeziñon meza izan zuten eta ondoren, Eroskiko Arruenako parkean kamioiak bedeinkatu zituen Ibon Aperribaik, Institutuko irakasleak. Bazkaria ere izan zuten ondoren. Baina, Arrue-nan elkartu nintzen eurekin. Hitz hauek Juan Jose San-chezek bota zizkidan. Bera

orain dela 26 urte hasi zen kamioiarekin lanean. Beti bidaiari luzeak egin izan ditu, gehienetan Andaluziara eta astean birritan egiten du joan-etorria. Hamabi-hamahiru orduko bidaiak dira, eta gel-dialdiak egin behar izaten ditu, legeak agintzen dion bezala. “Lau ordu eta erdi ibili eta ordubete gelditu. Beste lau ordu eta erdi eta hurrengo egunera arte geldirik. Horre-la gelditzearen gauza txarre-na zera izaten da, nekatuta gau-denean, bidaiari ekin behar diogula eta deskantsaturik gau-denean, gelditzea tokatzen zai-gula”. Eta hori gutxi balitz,

93.000 pezetan ateratzen zaio bidaia gasolioan: “840-870 litro, 114 pezetan litroa gutxi gorabehera; gehiegikeria da”.

UMOREA, BEHARREZKOA

Beti esan izan da garraiolariak umore handiko pertsonak dire-la. “Baina, zer erremedio! Lana egin behar izateaz gain, umore txarrez ibili behar baza-ra, akabo. Errepidean ibiltze-ko, gustatu egin behar zaizu, bestela ezin duzu jasan. Gai-nera, normalean bide berbera egiten baduzu leku asko eza-gutzeko aukera daukazu eta horren arabera, non gelditu ere hobeto aukeratzen duzu eta zure moduan bidaiatzen dute-nekin egiten duzu topo; horre-la, ez zara bakarrik egoten. Bai-na, egia esan ez da film asko-tan ikusi dugun bezala, koadrillak elkarrekin hizketan eta denok ibilbidea elkarrekin. Normalean bi lagun edo aur-kitzen dituzu zure bidaia ber-bera egiten. Hala ere, bidaia baldin badaukazu, afalostean kafea hartu eta ohera zoaz. Inoiz kamioilariren bat ikus-ten baduzu afalostean bere kopatxoarekin, hurrengo goi-zean bidaiarik egin beharrik ez duen seinale; hori norma-lean, ez gara orokortzen hasi-ko”.

AUTONOMOA ALA SOLDATAPEKOA?

Garraiolari autonomoak dira Debagoieneko San Kristobal Anaidiko kide gehienak. Bakoitzak bere bidaiak aurkitu behar izaten ditu eta kamioia non bete eta non hustu ere bai. Eta, jakina, bidaia errentaga-rria ateratzeko joaneko eta itzulerako bidaiak kamioia



Debagoieneko San Kristobalen Anaidian 40 gar

beteta duzula egitea komeni da. “bestela dirua galtzen duzu. Horrela ari garenok gidatzen goazen bitartean itzulerako bidaia topatzen ibiltzen gara, ahal dela, egiten ari garen bidaiari probetxua ateratzeko. Nire kasuan, adibidez, Sevil-laraino joaten banaiz eta itzu-lerako kamioia non bete ez badaukat, hobe daukat etxe-an gelditu, gasolioaren prezioa kontuan izanda, dirua galdu-ko dudalako. Irabazten dena-ren %80 gasolioan gastatzen da eta gelditzen den beste %20az etxekoendako eta bidaiako beste gastuetarako atera behar duzu; tartean, kamioia ordaintzeko, izan ere, 40 tonako baimena duen kamioi batek gaur egun hogei milioitik gora balio du. Egia esan, ez da jende askok uste duen bezain erraza. Jende



Joan den larunbatean ospatu zuten San Kristobal eguna.

no nagusi



40 garraiolari biltzen dira.

askok etxetik irteten garenean ikusten gaitu, baina goizeko hiruretan gatozenez, astebete kamioian lo egitetik neka-

neka eginda, orduan ez gaituzte ikusten. Lege horiek ipini zituenak garraioaritzari buruz gutxi zekien”.

ARRASATE-SEVILLA

- 12-13 ordu.
- 840-870 litro gasolio (114 pezetan/litroa).
- **Non gelditu:** La Brujula, Madrideojos, La Carlota, Sevilla.



Ibon Aperribai kamioiak bedeinkatzen.

Jorge Ballesteros soldatapeko garraiolaria da. Hogeita zortzi urte ditu eta azkenengo sei urteetan ari da kamioiarekin joan-etorriak egiten. Gaur egun Sevillara egiten ditu bidaiak, 40 tonarainoko baimena duen trailer batekin. 6.800 kilo ditu kabinak eta plataformak, berriz, 4.900 kilo; guztira, depositua beteta, 13 tona, zama barik.

Bidaia motzak ere egin izan ditu eta hasieran Madrileraino joaten zen. Hain zuzen ere, Madrilerainoko bidaiak onenak direla dio, batez ere takografoari begira lan egiteko: “sei lanordu dira eta astia daukazu eguna zerbaitetan aprobetxatzeko. Gainera, diskoaren ordutegian sartzen den bidaia da eta orduak soberan daude. Kontuan izan, kamioia betetzen dagoen bitartean lane-

an ari zarela, baina horiek ez direla kontuan hartzen; hala ere, zu goizean goizetik bueltaka ari zara eta gero kamioian lau ordu egiten dituzu gidatzen eta ordubete gelditzen zara, legeak horrela dioelako...”.

Berak aitortu digunez, txoferizanda “bidaia bat egin edo hamazazpi egin, berdin kobratzen dut, baina Sevillara joan-etorrikan banabil, gutxienez zortzi bidaia egin behar ditut soldata bat atera eta gastuak ordaintzeko. Nire kasuan, kontratuan jartzen duena lan egiten badut, kamioia aparkatu, su eman, eta dirua irabazten dugu eta seguruak ordain dezala kamioia”.

SAN KRISTOBAL

Ibon Aperribai eman zuen meza joan den zapatuan Kontzeziñon eta gero, bera ere Arruengan zebilela aprobetxatuz, San Kristobali buruz zerbait kontatzeko eskatu nion. Dirudienez, siriarra zen, gero santu egin zuten eta 310. urtean hil zen, gutxi gorabehera. Garraioariekin duen loturari buruz galdetuz, “bere herriaren inguruan erreka handi bat zegoen eta bertako haurrei erreka gurutzatzen laguntzeagatik da ezaguna San Kristobal; garraiatzen aritzen zenez, garraioari zaindaria da”.

Garai batean hiri handi guztien sarreran zegoen santu horren irudia eta ziotenez, bere begietara begiratzea nahiko izaten zen bidaiariak egun horretan inongo arazorik ez izateko euren bidaietan. ■

Marijo Deogracias

MIKEL AMENABAR (GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOKO LEHENBARRIA)

“Hemen guk erabakiko”

Euskal pilota federazioak Espainiakotik ateratzea erabaki zuen ekainaren 27an. Pedro Lizarralderengana jo genuen gai horri buruz hizketan egiteko. Bera, kargua laga duen arte, Gipuzkoako pilota federazioeko epailea izan da. Berak, ordea, Mikel Amenabarrengana bidali ginen. Lagun handiak dira Pedro eta Mikel. Zubietar honek, oraintxu egiten ari diren hauteskudeetan lehendakari aukeratzen badute, erronka berriz onartuko duela dio. Eta gogoz egingo du gainera. Gauzak oso argi ditu eta, gizon argal, luze eta ile urdindun pilotazaleak; izan ere, Amenabar pilotariaren semea da; baina, bere aitak esaten omen zion bezala “pilotan egiten ez da erakusten, ikasi baizik”.

— Espainiako federaziotik ateratzeko erabakia hartu zenuten. Beharrezkoa al zen?

— Bai. Hiru urte generamatzan, hartu-emanak onak ez zirela. Euskal Herriko federazioa osatu zenean Bilbon eta Valladoliden bilerak egin ginen eta gure kezka agertu genizkion. Bilbon konpromiso batzutura iritsi ginen eta idatzita daude gainera. Han adostu genuen eurek antolatzen duten Federazioen arteko Txapelketan parte hartuko genuela, beti ere gure eskaerak betetzen bazituzten; txapelketa horren antolaketa aldatzea, guretzat oso garesti ateratzen baitzen eta etekina hutsa zen (Zamorara joan bizkaitar eta gipuzkoarrek elkarren aurka jokatzeko, eta Zamoran ateratako lizentziarekin ari ziren euskaldunen aurka jokatzeko...); Espainiako federazioko gure ordezkaria euskal federazioak izendatutakoa izatea; Espainiako txapelketak hemen jokatzeko zirenean epaileak euskal elkargoak izendatzea eta abar.

Kontua da guztiari baietz esan ziotela, guk txapelketa jokatu genuela eta eurek ez zutelarekin hitza bete. Hurrengo urtean ez genuen federazioen arteko txapelketa jokatu, euren jarrera euskal federazioari burula egitea zela argudiatuz.

Garcia Angulo dio politika nahastu dugula kirolean eta guretzat argi dago: politika egiten duen bakarra bera da. Gu prest gaude pilotaren alde egiteko.

ko, baina gure nortasunarekin eta ez besteen aginduak betez. Hemen dago pilotari multzorik nagusia; ezin dugu onartu Murtziako federazioak, adibidez, guk haina indarra izatea.

— Erabaki hau hartu duzuen lehenengo kirol federazioa zarete.

Beste batzuk animatuko direla uste duzue?

— Beste kirolek euren eskubidea dute nahi baldin badute, baina pilotak beste kirolek baino arrazoi gehiago dauka. Pilota kirola, “pilota vasca” da eta



“Gu prest gaude pilotaren alde egiteko, baina gure nortasunarekin eta ez besteen aginduak betez”

AKARIA)

dugu”

federazio guztiek dute “hango edo hemengo euskal pilotata federazioa” izena, Espainiakoak izan ezik.

— Zer aldatu da?

— Gure antolamenduari dagokionez, ez daukagu gure federazioaren gainetik beste bat zer egin behar dugun agintzen. Kirol legea onartu zenetik euskal federazioak espainiarrak haina indar dauka; Espainiako federazioak ezin du hona etorri agintzera. Kolaboratzeko prest gaude, baina hemen guk erabakiko dugu nola egin.

— Bozketa egunean parte hartzea txikia izan omen zen (127tik 64 boto).

— Beti dira batzuk joaten ez direnak, baina gainera lehenbiziko aldiz aste egunean egin zen eta beste askok “hori irabazita dago” pentsatu eta ez ziren joan; hala ere, erdiak baino gehiagok bozkatu zuten.

— Pilota, asko zabaldu den kirola izan da. Zuek hartutako erabakiak ondoriorik izango du?

— Kontuan izanda pilotari profesionalak kanpoan gelditzen direla, ez dut uste. Gurekin duten hartu-emanak lizentziak eta epaileak eskatzeko baino ez da.

— Nazioarteko federazioan noiz sartuko da euskal federazioa?

— Isla de Reunionen egingo den batzarrera joan gaitezke edo Bilbon egin arte

itxaron dezakegu. Euskal federazioak ikusi beharko du zer laguntza lortzen duen eta horren arabera erabaki Nazioartekoan sartzeko eskaera egin edo ez egin.


— Arrasateko pilota elkarteak Arrasate Kirol Proiektuarekin lan egiten du haurrak pilotan hazteko. Zer lan egiten du federazioak horretan guztian?

— Eskola kirola irekia da, hau da, pilota egin nahi duen orok joki dezake, begi bakarra eta beso motza izan arren ere. Lehenbiziko helburua pertsona da eta ez munduko txapeladak izatea. Pertsona izaten laguntzen badiogu, gero kirolari ona izaten lagunduko diogu eta bestela erakutsiko diogu kirolaz gozatzeko eta ondo pasatzeko. Hori da diputazioak markatzen duena 12 urte dela. Orduko Pilota federazioak erabaki zuen hori desastre bat zela eta ez zutela ezer egingo, baina beste kirol guztiak sartu egin ziren. Zorionez azkenengo hiru urteetan gauzak asko aldatu dira; lehen diputazioak 800.000 pezeta ematen zizkion pilotari eta aurten 8,5 milioi eman dizkigu.

— Ezagutzen duzu Uarakapeko pilotalekua?

— Bai, ederra da. Profesionalak beti kezkatzen dira, batez ere galtzen badute eta Retegi baldin bada, okerrago. Pilotalekua erabili egin behar da. Atanok, adibidez, zorua primerakoa dauka orain, baina 30 urte ditu. ■

Emakumeentzako “Makina erreminta eta doikuntza ikastaroa”



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain lan-jantziarekin.

Makina erreminta eta doikuntzako oinarrizko teknikan emakume talde bat prestatuko da, metalgintza arloan lanpostu bat lortzeko.

Jantzi buzoa zuk ere

- **Norentzat:** Emakume langabeentzat.
- **Ordu kopurua:** 400 orduko ikastaroa.
- **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 14:00etatik 17:30era.
- **Noiz:** 2000ko irailaren 19tik martxoaren 23ra arte, asteazkenero.

Izena emateko epea: 2000ko uztailaren 21a arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.

Antolatzailea: Enplegu Zerbitzua
Laguntzailea: Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■
Enplegu Zerbitzua ■

Mende erdi baino gehiago burdin artean

Biteri kaleko denda 1996an ireki zuten, baina Aldedi 1942ko apirilaren 14an ireki zuen Jaxinto Guridik, beste hiru bazkiderekin. Orduan altzairu handizkaritan aritzen ziren gehien bat. Gero, burdindegian lanean hasi ziren. Aldedi, Mendizabal, Markaide eta Guridi abizenen bukarak hartuta osatutako izena da. Baina, "Comerciales San Juan" ere deitu zioten, (Grupo San Juanen zeudenean). Hasierako izena berreskuratu zuten Guriditarrek 1956an burdindegiarekin, Jaxinto Guridik eta bere bazkideek.

Arrasaten Zerrajerak indarra zuenean eurentzat lan eginen zuten, baina harek ere beherra egin zuen eta burdindegia sortzeko aukera sortu zen.

Gauregun hiru lagun ari dira lehehengo solairuan 180 m² eta



Joxe Guridik orain dela lau urte ireki zuen Biteri kaleko denda.

goiko solairuan 80 m² dituen dendan, sarrailak egiten eta burdindegian. Arrasaten oso bereizituta dago burdindegia industrial, sukaldeko tresneria, sarraila negozioa, arotzak eta bestelako gremioak. Joxe Guridik dioenez, "Aldedin torlojurik ez dugu saltzen eta sarrailak ez dira

sukaldeko tresneria dagoen dendetan saltzen. Urte askotan aritu gara denok Arrasaten lanean eta bakoitzak bere esparrua dauka; urteen poderioz, harreman onak ditugu".

BEZEROAK

"Gehienak partikularrak dira,

baina arotzei eta enpresen mantenimendukoei ere banatzen diegu".

Sarrailak, gontzak, esku-tokiak... dira gehien saltzen dituztenak, baina, batez ere, giltzak: "harrigarria da zenbat giltza galtzen diren. Jendeak ez dio garrantzirik ematen giltzei eta horregatik galtzen dira horrenbeste. Gaur egun segurtasun giltzak geroz eta gehiago erabiltzen dira eta jendea ez da konturatzen poltsikoan 5.000 pezeta baino gehiago eramaten duela giltzatan".

PREZIOAK

"Arrasaten elkartuta gaude burdindegi saltzaileok eta giltzen prezioak guztietan berdinak dira. Kopia merkeenak 200 pezeta eta garestienak batz bestea, 2.000 pezeta balio du, etxerako"

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Asteburuan Santamainara!



Bilerak, entseguak, lanerako zerrendak... lan eta lan ibili dira Santamainan auzorako jai bereziak antolatzen. Eta asteburu honetan ikusi ahal izango dugu lan horren emaitza. Hasteko, rock kontzertu bat eskaintzen da jaien egitarauan; eta auzoko gazteek ere saia-kera berezia egin dute aurtengo jaietarako: txaranga bat sortu.

W.W.W.TXARANAG@COM

Izen moderno eta guzti, hilabete inguru daramatzate Santamainako 20-30 bat auzokidek entsegutan, txaranga ikusgarri bat ateratzeko asmoz. Musikari biren gidaritzapean, soinua, danborra eta bonboa erabiliko dituzte musika-tresna nagusi moduan. Hauetako laguntzen, turtak joango dira.

Denetarik jotzen omen dute eta Santamaina animatzeko prest datoz.

Berritasunez gain, baina, badago Santamainako auzoan urtero-urtero egiten den eskaintza berezi bat, aipagarria hau ere: bolo-palma.

KANTABRIATIK SANTAMAINARA

Auzoko kantabriarrek, asturiarrek eta galiziarrek ekarritako jokoak da bolo-palma. Santamainan 16. urtez jokatu da aurtengo bolo-palman. Hemengo boloe-kin konparatuz, bola txirloengana lurretik joan beharrean, airera botatzen da aurrenik, horixe da desberdintasuna; bereziki, Kantabrian jokatzen da.

Santamainan duela 17 urte sortu zen bolo-palma taldea: Peña Bolística Arrasate Mondragon izenarekin, 16 urte daramatza txapelketak antolatzen.

Jaiak auzo alkatearen hitzetan

Javi Linazasorok hartu du pasa den ekainaz geroztik, Santamaina auzoaren gidaritzatza. 46 urte ditu berak eta lerkuntza eta Garapeneko teknikaria da Fagor Elektronikaren.

Oraindik oso denbora gutxi darama auzoaren alkatetzan, baina izan du aurreneko esperientzia jaiak antolatzen.

- Zer nabarmenduko zenuke?

- Berritasunak sartzen saiatu gara, auzokideen partaidetza eta proposamenak lortu nahian; eta fruituak eman ditu, bai. Esaterako, aurtengo herri-bazkaria egingo dugu, jendeak halaxe eskatuta. Horrez gain, rock jaialdia ere badago eta nahiko dezentea, gainera.

- Lan berezia egin duzue, beraz...

- Bai, alkatetzako talde berriak jaiak antolatzen dituen aurreneko aldia izanik, onak izan daitezkeen saiakera berezia egin dugu. Jendearen laguntza bila joan gara, jaiak guztionak izateko. Hala ere, lehenengo aldia denez, oraindik ez gara atrebenzia osoarekin atera. Barkamen eskaera bat ere egin nahiko nieke auzoko alde bietan geratzen diren kaleetako bizilagunei, zaila izaten baita leku guztietara heltzea.

- Bisitariarentzat gomendiorik...

- Etortzeko, badagoela zer ikusi. Denetarik dago: rocka, gaztetxoentzako jokoak, Egan taldea dantza egiteko... Beraz, animo eta etorri Santamainara, ez gaude urrutitan!!!



N o s k i ,
datozenei eta
auzotarrei,
ondo ibili
jaietan!!!

Egitaraua

UZTAILAK 14, OSTIRALA

- 19:00 Jaien hasiera.
- 19:30 Argazki-rallyaren erakusketak irekiko da.
- 22:00 Rock-jaialdia Makatzena pilotalekuan; taldeak: *Iskanbila*, *Des-Kontrol*, *Señor No* eta *Asgarth*.
- 23:00 Dantzaldia Miramar orkestrarekin.

UZTAILAK 15, LARUNBATA

- 10:00 Diana eta buruhandiak.
- 10:30 Pilota-finalak Makatzena.
- 11:00 Bolo-Palma txapelketa.
- 11:30 Santa Teresako zelaian zaituen futbito txapelketa.
- 12:00 Auzoko erretiratuen omenezko meza Mesedee-tako amaren elizan. Ondoren, bazkaria.
- 17:00 Bolo-Palma txapelketaren finalak eta pilota partidak Obenerreka pilotalekuan.
- 17:30 Herri-jaiak (poniak...) Mentu plazan.
- 23:00 Dantzaldia Eganekin.

UZTAILAK 16, IGANDEA

- 10:00 Diana eta buruhandiak.
- 10:00 eta 11:00 Futbito txapelketaren finalak.
- 11:00 Bolo-Palma denontzat.
- 12:00 Meza nagusia.
- 13:00 Futbito txapelketako eta Argazki Rallyko sarietan banaketa.
- 14:30 Herri bazkaria, ondoren, herri-jolasak.
- 16:00 Haurrentzako parkea, mus-txapelketa Montserrat tabernan eta Bolo-Palmaren finalak.
- 16:30 Dardo lehiaketa Ugarte Tabernan.
- 20:00 Dantzaldia Miramar orkestrarekin.

Mendiko bizikletan onenak

Mountain Bike Klasikoa jokatu zen joan den larunbatean Aramaion. Bost km mendian zehar: ibilbide aldapatsua. 65 txirrindularik hartu zuten parte eta kadeteek eta emakumezkoek bina bira eman zioten ibilbideari; juniorrek lau eta seniorrek, berriz, bost.

Irabazlea Iñigo Iparragirre izan zen, Orbea taldekoa.

Juniorretan txirrindulari handi batek irabazi zuen: Iñaki Lejarretak. Bera munduko txapelduna da eta mendiko bizikletan ezezik, errepidean ere txirrindulari sendoa dela



Marino Lejarretaren lobak, Iñakik, irabazi zuen juniorretan.

erakutsi du. Aramaiora, esaterako, Espainiako Itzulia jokatu eta zuzenean joan zen.

Aste honetan Euskadiko Openeko finala jokatu da Bastidan.

Pilotalekua itxita

Uztailaren 17tik San Bartolome egunera arte itxita egongo da Uarkape Udal Pilotalekua. Lanak direla eta, hilabete osoan zehar ezingo da pilotalekua erabili. Izan ere, frontisa, ezkerreko pareta eta itoginak konponduko ditu Amenabar enpresak. Gogoratuko duzuen bezala, Uarkapen ura sartu zen, Sanjoanetako domekan bota zuten euri jasaren ondoren.

Bestalde, pilotakaderek zuloak eragin dituzte ezkerreko paretan eta frontisean ere hainbat harri solte daudenez, hura ere konpondu beharko dute.

Gipuzkoako txapelketa absolutuak

Arrasateko kirolariak oraindik ere markak hautsi nahian ari dira. Izan ere, Espainiako Txapelketan parte hartu nahi badute, horretarako eskatzen diren markak lortu behar dituzte. Hori dela eta, joan den larunbatean Tolosan egon ziren Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko hainbat kirolari.

Berazubiko pistetan 100 m eta 400 m.ko lasterketetan eta altuera jauzian aritu ziren kirolariak eta hauek izan ziren: Unai Sarabia, Lorenzo Avila, Martin Avila eta Jokin Dz. de Lezana.

Lau kirolari hauek Gipuzkoako txapelketa absolutuak jokatu zituzten eta honako emaitzak lortu

zituzten:

Unai Sarabia	100 m	11"22
Lorenzo Avila	100 m	11"52
Martin Davila	400 m	53"07
Jokin Dz. de Lezana	altuera jauzia	1' 80

Unai Sarabiak taldeko denborarik onena egin zuen. Izan ere, Espainiako txapelketan parte hartzeko behar duen gutxieneko denboratik (11"20) bi ehunekotara gelditu zen. Hala ere, oraindik ez da denboraldia amaitu eta hainbat aukera ditu marka hori lortzeko. Animo mutilak!

Juldain, hirugarren

JMAko txirrindulariak fin ari dira denboraldi honetan. Joan den asteburuan, Oñatin aritu ziren bigarren urteko kadeteak eta JMA taldeak podiumera igotzea lortu zuen. Iñaki Juldain hirugarren helmugaratu zen 60 km.ko ibilbidean. Udanan Amets Elustondo, JMAkoa, tropelaren aurretik pasatu zen. Oñatira iristen azkarrena Ciclos Berristain taldeko txirrindulari bat izan zen, Iban Iriondo. Berak esprintean irabazi zuen eta Juldain hirugarren izan zen.

Hala ere, bere taldekideak ere nahiko aurrean helmugaratu ziren: Aitor Elortza zortzigarren, Raul Blazquez 14. eta Amets Elustondo 22., eta horri esker, JMA lehenengo

saikatu zen taldeka. Aste honetan Urnietan 64 km.ko lasterketa dute.

FAGOR

Gaspe mailako txirrindulariak Mendaron aritu ziren joan den asteburuan. Gipuzkoako Linea Txapelketa jokatu zuten, 90 km.ko ibilbidearekin. Izena 117 txirrindularik eman zuten, eta 48k ez zuten lasterketa amaitu. Tartean, Fagor taldeko txirrindulariak egon ziren. Bost joan ziren, baina bakar batek ere ezin izan zuen lasterketa amaitu; atzeko taldean gelditu ziren eta epaileak kaleratu egin zituen.

Hala ere, aste honetan beste aukera bat dute. Bergaran izango da, larunbatean.

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

ARAOTZ Merenderua

Ingurune zoragarrian
lagun artean
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26

beinke

Donosti Cupetik, Gasteiz Cupera



Bizkorrak taldeak Nigeriaren aurka galdu egin zuten.

Bizkorrak futbol taldea joan den astera arte Donosti Cup txapelketa jokatzeko aritu da, Joserra Zabaletaren zuzendaritzapean. Lehenengo lau partidak irabazi egin zituzten arren, kanporaketan Nigeriaren aurka amore eman behar izan zuten. Kontatu digutenez, "sekulako mutikoteak ziren eta, gurek ezin izan zuten ezer egin; hala ere, oso ondo pasatu genuen". Jadanik laugarren urtea da Bizkorrak taldeak Donostia Cup txapelketa jokatzeko duela. Lehenengo aldiz, alebin mailan izan zen eta orduan txapelketa irabazi

zuten.

Aurten beste 160 talde aritu dira Donostian eta euren multzoan 48 taldek hartu dute parte. Hamalau herrialdeko neska-mutikoak aritu dira eta uztailaren 2an Ilunbeko zezen plazan ongi etorria egin bazieten, uztailaren 8an sekulako jaia antolatu zieten Ilunben bertan. Hurrengo urtean ere, kadete mailan ibiliko dira; bitartean Mondrako taldeetan jokatzeko segituko dute gazte hauek.

GASTEIZ CUP

Bestalde, astelehenean Gasteiz



Canas Esteban taldea ari da Gasteiz Cup txapelketan.

Cup txapelketari ekin zioten Canas Esteban taldeko jokalariek. Txapelketak uztailaren 15era arte iraungo du eta mondragoetarrek zortea baldin badute behintzat, han egongo dira. Taldea, Lander Andres, Andoni Arruti, Xabier Aranbarri, Gorka Bollon, Jon Linacisoro, Aitor Oregi, Iñaki Mardaras, Mikel Davila, Alex Sanchez, Andoni Arriaran, Asier Urrea eta Adrian Fernandezek osatzen dute eta entrenatzaile lanetan Marcelino dabil.

9-10 urte arteko mutikoak dira eta herriko talderik gazte-

ena osatzen dute; B-10 mailan ari dira jokatzeko. Txapelketan 9 talderekin aritu dira, bi multzotan banatuta. Lehenengo partida Iturgitxi taldearen aurka jokatu zuten eta 4 eta 0 irabazi zuten. Partidak Gasteizko Adurtza eta Vitoriana zelaian jokatzeko dituzte.

AURREKARIAK

Construccion Canas Esteban etxeak babestutako taldeak aurrekari bikainak ditu txapelketa honetan. Izan ere, bi urtez irabazi du txapelketa. Ea, bada, uztailaren 15ean finala jokatzeko aukerarik duten.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Anger, maketa grabatzeko prest



Arrasateko Anger txandak metal taldeak bere lehenengo maketa grabatzeari ekingo dio hilaren 24an. Bost abesti bilduko ditu lehen disko horrek, eta 80.000 pezetako dirulaguntza jaso dute udalarengandik, grabaketa egiteko laguntza eskatzen duten talde guztiek bezala.

Anger boskotea Aitor Lopez, Arkaitz Biain, Ekain Zubizarreta, Beñat Unzueta eta Alberto Rodriguez gazte arrasatearrek osatu zuten 1997an. Ordudunik, 15 kontzertu eskaini dituzte, horietako bat Dextremaduran.

AEDrekin, Iparraldera oporretan



AED elkartearen barruko Hegohaxe egitasmoak auzolandegiak antolatu ditu ipar Euskal Herrian, azken sei urtetan egin duen bezala. Lapurdiko Ziburu herrira joango dira aurten, hango ikastola egokitzeko lanetan harri-koskorra ipintzera. Lanok goizez izango dira, eta arratsaldez aisialdia betetzeko ekintzak egingo dituzte. Hamabost egun horietan, Iparraldea ezagutuko dute, giro euskaldunean.

IZENEMATEA, ZABALIK

Bi txanda antolatu dira: uztailko bigarren hamabostaldian, eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Lehen txandarako izenemate epeak zabalik dihardu, orain arte lagun gutxi aurkeztu delako; eta bigarrenakoak uztailaren 28ra arte jardungo du. AEDko bazkideek 15.000 pezeta ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, aldiz, 18.000.

Opor egitasmo honekin,

hainbat helburu bateratu eta bete nahi ditu AEDk: bate-tik, ipar Euskal Herria hobeto ezagutu eta euskarak han bizi duen egoera aztertu, eurek diotenez, egoera nahiko larria da, eta ahal den neurrian, gure hizkuntzari bultzadaxo bat eman nahi diote; bestetik, Iparraldeko ikastolekin elkarlana sustatzea.

Badakizue, beraz: anima zaitzete, zabal-zabalik izan-go dituzue AEDko ateak.

Lore Gazteak-en emanaldia

Urtero egiten duen bezala, Lore Gazteak dantza talde arrasatearrak emanaldia eskainiko du eguazten honetan. 14 urtetik 30era bitarteko 35 bat dantzarik hartuko du parte ikuskizun honetan, eta hego Euskal Herri osoko dantza tradizionalak eskainiko dituzte. Orain 4 urte hasi zen Lore Gazteak uztaileko dantza emanaldia eskaintzen, eta aurten ere ez dute kale egingo. Monterron Parkean izango da hitzordua, 22:00etan. Sarrerak 500 pezetan salduko dira; 300, Gazte Txartela edo Dantzarien Federazioko txartela edukiz gero.

“Txikuri”ren margoak Toki-Ederren



Esku pilotako jokalarri bezala ezagutzen dute arrasatear gehienek Francisco Mateos, “Txikuri”. Baina, 65 urteko mondragoetar honek beste hainbat irrika ere baditu, margogintza tartean. Hila-

bete honetan, San Andres auzoko Toki-Eder kafetegian dugu Franciscoren zale-tasun horren fruituak ikusteko aukera, bertan zabaldu baitu Arrasaten egiten duen lehen margo erakusketa.

ERRETIROA BETE

Berak dioskunez, berandu hasi zen margotzen, erretiroak ekarri zizkion aisialdi orduak betetzeko asmoz, margoak betidanik erakartzen zuen arren. Horrek bultzatuta, Monterroneko margo ikastaroan parte hartu zuen. Orain, batzuetan, egun osoa igarotzen du margotzen.

Estilo errealista lantzen du “Txikuri”k, eta bodegoia du gai gogokoena, nahiz eta paisaiak eta giza irudiak ere margotzen dituen. “Oso perfektionista naiz, eta ezau-garri hori margogintzan ere sumatzen zait”, aitortzen du Franciscok.

JOSEMA BERGARETXE (UDALEKO ENPLEGU TEKNIKARIA)

“Emakumeei lan eremu berriak zabaldu nahi dizkiegu”

Orain lau hilabetetik, Josema Bergaretxe arrasatearra da herriko Udaleko enplegu teknikari berria. Bera lanean dagoenetik abiarazi du sail horrek emakumeentzako makina-erreminta eta doikuntza ikastaroa.

—Zergatik emakumeentzako ikastaro hau?

—Arrasateko langabe gehienak, %90 gutxi gorabehera, emakumeak dira. Hori dela eta, udalak, emakumeari lan aukerak zabaltzeko filosofiarekin, hainbat egitasmo antolatu zituen: orain bi urte soldadura ikastaroa, eta orain makina-erreminta eta doikuntza. Tradizionalki gizonentzat ikusia izan den lanbide honetan, emakumeei ere aukera eman nahi diegu.


—Ikastaroa nolakoa izango da?

—Batik bat, praktikoa.

Debagoieneko Mankomunitatean Lantegi Eskolako irakasle batek emango ditu eskolak. 400 orduko ikastaroa izango da, irail honetatik datorren martxora arte. Bailerako hainbat enpresa eta tailerrekin praktikak hitzartu ditugu, ikastaroaren ondoren egiteko. Praktikak garrantzi handikoak dira, langileak ezagutzera eman eta enpresetan sarbidea emateko modua direlako.

—Nolako profila dute partehartzaileak?

—25-40 urtekoak dira, oinarrizko heziketarekin eta lan esperientzia gutxikoak. Gehienak lan aukera berri baten bila dabilta, eta hori da lanbide honetatik erakargarriena iruditzen zaiena. Eurentzat, ondo ordaindutako lan gaitu bat egiteko aukera da.



—Tradizionalki gizonentzat izan den lanbide honetan diharduten emakumeek desberdintasunik jasaten dute?

—Soldatari dagokionez, behintzat, ez. Arazorik izatekotan, enpresen azpiegitura aldetik egon litezkeela uste dut: adibidez, emakumeentzako aldagelarik ez dituztela.

—Enplegu sailak emakumeentzako beste ekimenik abiarazteko asmorik badu?

—Bai. Udazkenean soldadura ikastaroa jarriko dugu berriro abian, eta abenduan, etxeko zerbitzua emateko ikastaroa. Bestalde, autoenplegu ideiak dituztenei formazioa eskainiko diegu.

—Etxeko zerbitzu ikastaroa emakumeentzat bakarrik izango da?

—Printzipioz, bai, lan eskatzaile gehienak emakumeak direlako. Baina, bai ikastaro horretan, bai beste guztietan ere, gizonentzako aurkez daitezke, ez diegu ezetik esango.

“Gehienak lan aukera berri baten bila dabilta, eta hori da lanbide honetatik erakargarriena”

aste gazte

■ OPORRALDIA

• Udako oporraldia prestatzen ari baldin bazara, informazio baliagarria aurki dezakezu Gazte Bulegoan. Estatuko nahiz atzerriko informazioa dugu: zer ikusi, ibilbide turistikoak, ostatuak eta beste hainbat informazio interesgarri.

■ DIRULAGUNTZAK

• Barne merkataritza arloko aholkulariak prestatzeko dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: uztailak 22.

• Arlo turistikoan ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: uztailak 22.

• Kontsumo alorrean prestatzeko dirulaguntzak egiteko bekak. Epea: uztailak 22.

• Administrazio Publikoaren inguruan ikerketak egiteko dirulaguntzak, zuzenbidea, zientzia politikoak, soziologia, pedagogia, ekonomia edo enpresa zientzietan lizentziatuentzat. Epea: abuztuak 1.

■ LANA

• Arrasateko Udalerako, gal-daragile laguntzaile, iturgin eta zurginen lan poltsa osatu nahi da. Epea: uztailak 20.

• Arrasateko Udalean aldi baterako hainbat postu bete nahi dira: informatikarako laguntzaile, informatika monitoria, portu, ubide eta bideetako ingeniaria, saneamendu eta auzoetako teknikaria eta antolaketa teknikaria. Epea: uztailak 20.

■ IKASTAROAK

• Emakumeentzako “makina-erreminta eta doikuntza ikastaroa” antolatu du Udaleko Enplegu Zerbitzuak. Ikastaroa irailtik martxora arte izango da. Izen emate epea: uztailak 21.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

asteko filma



Campo de Batalla: La Tierra

(Battlefield Earth). Zientzia-fikzioa. EEBB, 2000. **Zuzendaria:** Roger Christian. **Aktoreak:** John Travolta, Barry Pepper, Forest Whitaker. **Kalifikazioa:** 13 urtetik aurrerakoentzat.

HARIA

3000. urtean gaude. Apokalipsten zantzuak bete egin dira: gizakiak arraza estralurtar basati baten esklabo bihurtu dira. Konkistatzaileen buru Terl handi-mandia dugu, galaxia guztia oinpean hartzeko jaioa dela uste duena. Supituki, gizaki bat izango du aurrez aurre, Johnnie Goodboy Tyler, gure salbatzaile izatera deitua dagoena. Gudua prest dago.

KRIKITA

Giza arraza, bere handinahikeriatik osatua, mesias baten beharrea; diseinuzko estralurtar xelebreak, gaiztoak baino, barregarriak direnak, bizidun guztiak esplotatzea besterik nahi ez dutenak; gizakion benetakoa noblezia proban jarriko duen askatasunerako borroka hunkigarria... Har bitez topiko horiek guztiak eta idatz bedi ez hanka, ez bururik ez duen zientzia-fikziozko istorio bat. Hori egin duten gidolariak marka guztiak apurtu dituzte: zientzia-fikziozko film txar ugari dago, eta ez da batere erraza horiei guztiei duin itxura ematea. Film honek errorra hori lortu du. Aktore bikainak guztiz alferrik galduak daude, eta pena ematen du John Travolta filmeko gaiztoarena egiten ikustekak, nahiz eta, gezurra badirudi ere, hau ez den barrea eragiteko pentsatutako produkzioa.

irakurle eta entzule

Iturria: Discopolis eta Zabaleta liburutenda

diskoak

CARLOS NUÑEZ Mayo Longo (BMG)



Disko ezin ederrago batekin datorkigu Carlos Nuñez gaitajole galiziarra. Gaitaren doinua zein aberatsa eta aurpegianitza izan daitekeen egiaztatzeko, aukera paregabea ematen digu *Mayo Longo* bildumak. Zeltiar sustraiei omenaldia da honakoa, eta baita omenaldi bikaina ere. Denerarik aurkituko dugu hemen: Rosalia de Castro galiziar poetaren mezu malenkoniatsua dakarren abestia, diskoari titulua ematen diona; bihotzeraino iristen diren baladak, batzuk galiziar zapore handiarekin (*Nana de lluvia*), poparekin bat eginga dakoak besteak (*The Moon Says Hello*). Galiziar kultura indartsu datorkigu *A Moura* edo *Foliada dos Aires da Terra* kantatu zoragarrietan; jai giroko konposizioak ere baditugu (*Pasacorredoiras*), eta gaitari omenaldi biziak diren sinfoniak ere bai (*Canto de Seitura, Aires de Pontevedra*).

liburuak

OBRA OSOA

Jon Mirande Aphasorho (Hiria)
(Bi liburuki, 3.975 pta bakoitza)



Euskal literatur-gintzako klasiko baten, Jon Miranderen, antologia plazaratu du Hiria argitaletxeak. Mirande ez da nolanhiko izena gure literatura tradizioan: euskal pentsalari eta idazle osoenatariko bat dugu, genero guztiak jorratu baitzituen, baina sarritan polemikoa eta ulertzeko zaila izan da Parisen jaiotako idazle hau. Bilduma honek Miranderen emankortasun eta erudizio horren ispilu izan nahi du, eta arlo guztietako idatzia dakartza: poesia xamurretatik hasi eta politika eta linguistikako artikuluz luze eta mamitsuetaraino iristen da, tartean hizlaria, itzulpenak, entseguak eta beste zenbait idatzi sui generis ikutzen direla. Gainera, euskara aberats eta aldakorra erakusten digu Mirandek, eta bere garaian gure hizkuntzak bizi izan zituen aldaketan berri ematen digu.

asteburuan zer

kontzertuak

ISKANBILA, DES-KONTROL, SEÑOR NO ETA ASGARTH

Santamaina auzoko jaiek erritmo kementsuak ekarriko dizkigute. Egubakoitzean, Makatzenako frontoian, 22:00etan, lau taldek kontzertua eskainiko dute: *Iskanbila*, *Des-kontrol*, *Señor No* eta *Asgarth*. *Iskanbila* eta *Des-kontrol* herrikoak ditugu, eta biek ere doinu indartsuak dituzte gogoko, baina bata punk estiloa eta besteak rock ikutua ipintzen dio bere musikari. *Asgarth* taldea ere Debagoienetik datorkigu, eta honek heavyzaleen gustuak ondo aseta utziko ditu. Momentuz, behintzat, eta debagoienarrek txanda hartu arte, talde eza-



gunena *Señor No* da. Laukote hau Donostian sortu zen 1993an, eta *Damned*, *Dead Boys* edo *Ramones* bezalako taldeen punk eraginak eta *Stooges*, *MC5* edo *Motörhead*-en rock gogorrarenak bat egiten dute euren musikan. Letrak, aldiz, zinismoz, umore txarrez eta amorruez beteta datoz. Hiru disko grabatu dituzten arren, kritikoen esanetan, zuzeneko emanaldietan ematen dute euren hoberena.

Antzuolako Udalak bai Goiena proiektuari

Goienak aurrera segitzen du eta bailarako udaletan hasi da aurkezten proiektua. Uztailaren 6an Antzuolako Udala eta Goiena elkar-terearen arteko hitzarmena gauzatu zen, GOITB Antzuolan ikusteko. Osoko bilkura onartu egin zuen proposamena. Beraz, ez dago eragozpenik Telebista hara eramateko.

Bergaran kontuak motelago doaz. Herriaren zati batean ikusten da GOITB, baina zati handiengan, ez. Horretarako Bergarako Udalaren erabakia falta da.

Joan den asteazkenean Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea GOITBn izan zen "Bergara aztertzen ari da gai hori eta proiektu baten zain dago. Egia da atzeratu egin dela gure erantzuna, baina horrek ez du esan nahi Bergarak eta Oñatik ez dugula nahi hori aztertzerik. Estudio sakon bat egiten gabiltza, zer premia eta zer eskuartze izango dugun eta denbora gutxi barru,



datorren astean edo, edukiko dugu zozer proiektuan planteatzeko. Baina guk ere parte hartu nahi dugu egitasmo horretan. Hil honetan ez bada, irailean izango da". Alkateak aitortu egin

zuen herritar askok deitzen diotela telefonoz, jakiteko noiz ikusiko den GOITB. "Denei esaten diet trankil egoteko, denetan ikusiko dela, ze hor sartzeko asmoa badugu".

San Lorentzoak eta Piedadeak

Astelehena, 21:30 • Asteartea, 13:30 eta 21:30

Asteazkena, 13:30

Aretxabaletako Portasolen San Lorentzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan eta Antzuolan, Piedadeak. GOITBk, jai hauei buruzko saio berezia eskainiko du. Portasolen Kepa eta Iraia bikotea ibiliko dira

bertako ekintzarik nagusienak gureganatzeko ahaleginetan eta Antzuolan Jon Tena eta Alaitz Jauregi arituko dira, besteak beste, zinegotzien aureskua eta maiuraren alardeaz informatzeko.



GIZAINNTZA

- Gaixo eta hirugarren adinekoen zaintze lanak
- Etxez etxeko laguntzan espezializatuak
- Ospitaleko egonaldi eta gauak
- Oporretan ere zaintzen ditugu etxeoak
- Klinika eta Geriatria laguntzaileak ere baditugu
- Goxotasuna eta Zerbitzua

Etxaluze, 54
20560 OÑATI

Tel. Mugikorra: 657 71 01 50

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxebizitza salgai Musakolan. Altzariekin eta berogailuarekin. Tel.: 943 77 15 83. Iluntzeko 8etatik aurrera deitu.

- Ferixalekuan etxebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldia eta bainuarekin. Kanpora begira. Berogailuarekin. Tel.: 943 77 19 48.

- Hiru logela, egongela, soto handia eta berogailua duen etxe berritua salgai. Tel.: 943 79 57 88 (20:00etatik aurrera).

3. Errentan emateko

- Gela bat alokagai, ikasleentzako, Arrasate erdi-erdian. Tel.: 943 79 45 87 (eguerdi aldean deitu).

- Apartamentua alokagai Laredon, hondartzatik oso gertu, 15-30 egunerako. Tel.: 943 79 52 87.

- Bungalowa alokagai Torreveijan abuztuko eta iraileko azken hamabostaldian, hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 52 94.

- Etxebizitza alokagai Erguinen. Tel.: 943 79 27 41.

- Etxebizitza alokagai San Andresen. Tel.: 943 77 03 53. Gauz deitu.

- Etxebizitza alokagai Donostian (Amara) abuztuan. Altzariak dauka. Tel.: 943 71 50 87.

- Ikasleen pisua alokagai San Andresen. 3 logela. Tel.: 943 79 81 05.

- Bi logela eta egongela-jantokia duen apartamentua alokatzen da Torreveijan, urte osoan zehar, hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

- Pisu eraberritua estreinatzeko alokagai. Erdigunean kokatua. Tel.: 600 05 69 37 edo 943 32 23 64.

- Teilatupe handia alokagai Torreveijan. Terrazaduna eta itsasora begira. Tel.: 600 05 69 37 edo 943 32 23 64.

4. Errentan hartzeko

- Irailetik aurrera etxe bat alokatuko nuke, 3 edo 4 gelarekin. Tel.: 943 83 34 47.

- Unibertsitateko ikasle talde batek lau laguntzako etxebizitza behar du Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.: 94365 45 22 (Aiala) edo 943 18 74 97 (Gorane).

- Unibertsitateko 3 ikasle pisua alokatuko lukete. Tel.: 943 81 54 45.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Pisu bila nabil Arrasaten edo eskoriatzan. Tel.: 946 83 24 67 edo 627 64 75 26. Gauz deitu. Aina- ra.

5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza konpartituko nuke Gas- teizen. Tel.: 617 72 47 96. Aina- ra.

GARAJEAK

7. Saldu

- Txindoki dorrean garajea salgai, goiko solairuan. Tel.: 943 79 24 10.

9. Errentan emateko

- Garaje itxia alokagai Eskoriatzan, Olaeta plazan. Tel.: 943 71 41 02.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Kalealdea 4, behean, 100 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

14. Errentan emateko

- Elikagaietan aritzeko lokala aloka- gai. Tel.: 943 79 96 39 (astegune- tan).

- Etxean eskola partikularrak emateaz aspertuta zaudela? Lokal bat alokatzen dizut zure ikasleekin erosoago egon zaitezten. Tel.: 943 79 18 70.

LANA

17. Eskaintza

- Esperientziadun neska tabernan edo jangelan lan egiteko prest. Tel.: 676 87 99 48. Bea.

- Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36.

- Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 646 76 01 66.

- Medikuntza ikasle bat gauz gai- xoak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 07 03, 943 79 23 17 (Ainara).

- Bretoi gaztea, 21 urte, Arrasate ezagutera dator uztailaren 2. hama- bostaldian. Lan orduren batzuk eskai- niko bazenizkio deitu 943 79 57 27 telefonora. Leire.

- Neska arduratsua eta esperien- tziaduna prest umeak zaindu eta plan- txa egiteko, irailetik aurrera. Ordu- tegiak ez du axola. Tel.: 677 79 32 72.

- Emakume arduratsua prest lego- ke umeak zaindu, etxeko lanak egin edo beste edozein lanetarako. Tel.: 943 79 48 65.

- Emakume batek umeak zainduko lituzke arratsalde. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaerak

- Emakumea behar da bi ume zain- tzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoa edukitzea derrigorrezkoa. Kon- tratua eta baldintza onak eskaintzen dira. Tel.: 619 74 24 38.

- 30 urteik gorako emakumea behar da pertsona nagusia zaintze- ko. Tel.: 630 16 05 06.

- Umeak zaintzeko pertsona ardu- ratsua behar da. Tel.: 943 79 41 67.

- Tabernarako esperientziadun zer- bitzaria behar da. Tel.: 943 77 17 97, 943 79 83 98.

- Neska bat behar da tabernan aste- burutan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Pertsona bat behar dut neskatila bat zaintzeko. Tel.: 943 79 82 18.

- Pertsona bat behar da jatetxe-kafe- tegi batean lan egiteko. Tel.: 629 94 22 53.

- Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko abuztuan, goizetan. Tel.: 943 79 09 11.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- DBHko eta LHko eskola partiku- larrak emateko prest nago. Tel.: 943 79 33 39. Ahal bada 21:00etatik aurrera deitu.

- Frantsesezko mintza praktikak eskaintzen dira, uztailaren 2. hama- bostaldian. Jatorrizko hiztuna. Tel.: 943 79 57 27. Leire.

- Fisika eta matematikako eskola partikularrak emango nituzke, selek- titate mailara arte. Tel.: 943 79 68 29. Esther.

21. Eskaerak

- Filosofia lizentziatua behar da UBI- ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 33 91.

MOTORRA**23. Saldu**

- Volkswagen Golf 2-GTI salgai. Tel.: 943 79 24 51 (21:00etatik aurrea, Maria Jesus).
- Renault 19 turbo-diesel salgai. Tel.: 943 79 24 51 (21:00etatik aurrea, Maria Jesus).
- Mitsubishi Montero bat salgai, prezio interesgarrian. Tel.: 629 40 48 08. Enrique.
- Ford Transit furgoneta salgai, kanpinerako egokitua, abantzearekin eta teiltuan ohea duela. Tel.: 943 79 31 25. Arratsaldez.
- Peugeot Speedfight bat salgai dago. Prezioa: 160.000 pta. Negoziatu daiteke. Tel.: 943 79 94 62, gauze deitu. Loli.

DENETARIK**26. Saldu**

- Txakurrendako atoa salgai. Tel.: 943 79 82 24 (gauze).
- Billar amerikarra salgai. Egoera onean eta prezio negoziagarrian. Tel.: 630 38 91 22 (Felix).

- Drahtahrar arrazako bi hila-bete txakurra saltzen dugu. Pedigriduna. Tel.: 948 69 40 44, Yolanda edo Jose.

- Kanitxe kume zuriak salgai. Tel.: 943 76 57 16.

- Playstation kontsola salgai, 10 jokurekin. 10.000 pta. Tel.: 943 77 94 55 (Mikel).

- Hiru txakur salgai: Spaniela, 6 hila-bete, arra; Puentea, emea, urte eta erdi; eta Setterra, emea, 11 hila-bete. Tel.: 943 76 37 70.

- Hiru lekuko sofa, bi silloi eta bi ohe mahaitxoekin salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 53 12.

- Auto gainerako PVCzko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69.

- Trialsineko bizikleta salgai, egoera onean. Tel.: 943 7 03 95, 20:30etik aurrera.

- Roller karabana salgai, abantzearekin eta guzti. Tel.: 608 67 66 02.

- Karro-denda salgai, osagai guztiekin. Tel.: 943 77 01 70.

- Aluminiozko bost lanta, estalki berrieekin. Opel Corsa edo Opel Kadet-entzako berri-berriak dira. Tel.: 943 79 93 19.

29. Eman

- Katu siamesdarra oparitzen dut, 2 urtekoa, ezin atenditzeagatik. Oso maitakorra da. Tel.: 943 76 39 95.

30. Hartu

- Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genuke. Tel.: 616 53 36 76.

31. Galdu

- Perla zuridun eta txibista formadun lotura duen lepokoa galdu nuen ostiralean, Seber Altuben. Aurkitzen duenak saria jasoko du. Tel.: 943 79 78 54.

- Gizon batek betaurrekoak galdu ditu. Otolara, Iturriotz eta Olarte artean: Leiar progresiboak dira eta kutxa urdin batean gordeta daude. Tel.: 943 79 61 31. Pedro Luis. Arratsaldez. Sarituko da.

33. Bestelakoak

- Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu

- Amaia Antzoki inguruan 34 neurriko jaka bakeroa aurkitu nuen. Tel.: 943 79 17 88.

- Sanjoan bezperan giltza joku bat agertu zen Totem dendan. Jabea bertatik pasa dadila.

- Ekainaren 25ean, neskatilarentzako jaka bakeroa aurkitu nuen, 12. tailakoa, Zaldibarren. Tel.: 943 77 00 18.

- Pasa den larunbatean Nike jertse bat aurkitu nuen, Lorategi tabernaren aurrealdean. Udaletxean utziko dut.

36. Deialdiak

- Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuan, bi astez. Tel.: 943 77 01 31.

HARREMANAK**37. Bestelakoak**

- Familia bat behar da, datorren ikasurtean ikasle bat bere etxean hartzeko. Tel.: 943 83 37 45. Josu.

Loramendi kirolak

Abuztuan goizez zabalik

Zure oporretarako material guztia

2.765 pta

11.450 pta
Goretex

9.995 pta

2.750 pta

4.995 pta

8.995 pta



Sorkundetarren Ordenak ikastetxe bat izan zuen Kontzeziñon, 1978. urtean Udalarako bidera joan ziren arte. Klausurako mojak ziren eskolaren zuzendariak. Ikastetxea neska-mutikoei zuzendutakoa zegoen arren, eskolak bananduta ematen zituzten, eraikuntza berean, baina ikasgela desberdinetan. Abesten, irakurtzen eta antzekoak egiten irakasten zen; gure berri-

mailearentzat: "urte haietaz oroimen ona gordetzen dut".

Argazki hau 1950-60. urtekoa da. Hiru adineko ikasleak agertzen dira bertan; irakaslea, berriz, Maria del Burgo Grande da, gaur egun Sorkundetarren Ordenako Ama Federa-kundeko lehendakaria.

Ikasleak hauek dira, goiko lerroan, ezkerretik eskumara eta zutik: Amaia Zeziaga, Espe Garai, Hirune Iribecampos, M. Dolores Aiastui, Pili Gar-

mendia, Begoña Zeziaga eta Maite Iturri.

Bigarren lerroan, eserita daudenak: Kontxi Uribarren, Amaia Arantzabal, M. Teresa Sagardoi, Margari Gorosabel, Maite Azkoaga, Arantza Garai eta zutik M. Jose Arzamendi.

Lurrean eserita daudenak, berriz, hauek dira: Marisa Otadui, M. Asun Zabaleta, Maite Borque, Nerea Askasibar, Arantza Zulueta eta M. Jose Lasaga.

Duela lau mende inguru etorri ziren Sorkundetarrak Mondragoera. Beatak ziren hasieran, Isabelinak ondoren eta 1926. urtean egin ziren Sorkundetar. Arrasatetik Aretxabaletarainoko lurzorua zati handi baten jabe ziren, Mendizabalen Desamortizazioaren ondorioz galdu zuten arte.

*Argazkia eta berriemailea:
Hirune Iribecampos*



<http://agila.opel.es> 902 11 99 00

ja, ja
 aja!

opel agila berria hasieran ja ja, gero aja!

Hasiera baten, Agila berriak berezi samarra eman lezake, baina hiriko auto adimendun baten aurrean gaude. Auto txikia da, baina kanpotik; izan ere, Agila berriaren barrua zabala da oso, edozertarako tokia dauka. Atzeko eserleku benetan erosoak lurraren mailan tolesta daitezke, eta 1.250 litroko tokia egin. Baina, horretaz gain, jarlekuen alturak primerako ikuspen eta maniobralitate eskaintzen dute. Zenbat eta hobeto ezagutu Agila berria, orduan eta gehiago errepikatuko duzu "aja!".

Zatuz zeure kontzesionariora eta deskubritu.

OPEL

TALLERES OLA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

orain 2.495.000 pta*.

- ABS
- 4 airbag
- Polenaren aurkako filtrodun aire girotua
- Audio ekipoa, bolantean mandoa duela
- Lagunduriko direkzioa
- Lainokontrako argiak
- Margo metalizatua
- Atzerako ispilu termoelektrikoak
- Quadralink atzeko esekidura
- Itxiera zentralizatua urrutirako agintearekin
- Gidariaren eserlekuaren altuera, elektrikoki egokitzeko aukera

zeuk erabaki,
gasolina 16v 1,8 115cv edo
turbodiesel intercooler 90cv, 4, 5 ate edo wagon.

fordmondeo zetec




*Prezio gomendatua ekainaren 27tik uztailaren 31 arte Penintsulan eta Balear Uharteetan. BEZ, garraioa, kotzesionarioaren ekarpena eta Prever Plana barne.

MUGARRI

DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54



ARRASATE
KIROLAK

Bizi udako abiadura!



KONTZEZIÑO,8 - TEL.: 943 79 46 12 - FAXA: 943 77 05 30